

5. KANALAK

Bezero Kanalak

Zer da?

Bezero-kanalak dira bezeroekin harremanetan egoteko eta produktuak saltzeko bideak. Helburua da bezeroak marka ezagutzea, produktua erostea eta salmentaren ondorengo harremana mantentzea. Kanal egokiak aukeratzea funtsezkoa da jende gehiagorengana iristeko eta produktua hobeto ezagutarazteko.

Teoria: Kanal motak

- Kanal propioak (zuzenak): enpresak berak kontrolatzen ditu, adibidez webgunea, online denda eta aplikazioa. Alde onak: bezeroarekin harreman zuzena eta kontrol handiagoa. Alde txarrak: garestiagoak eta kudeaketa gehiago behar dute.
- Kanal elkartuak (zeharkakoak): beste plataforma batzuen bidez saltzea, adibidez Amazon edo denda teknologikoak. Alde onak: produktua jende gehiagorengana iristen da. Alde txarrak: irabazi gutxiago eta kontrol txikiagoa.
- Kanal mistoak: biak batera erabiltzea. Alde onak: aukera gehiago eta hedapen handiagoa. Alde txarrak: kudeatzea zailagoa eta lan gehiago.

Geo Segur-en kanalak:

Geo Segur-ek txip edo pegatina pertsonalizatuak saltzen ditu. Produktuak denbora errealean jarraipena egiteko aukera ematen du, eta aplikazioaren bidez abisuak jasotzen dira lapurreta edo mugimendu arraroak gertatzen direnean.

Aukeratutako kanalak eta zergatia bezero segmentuarentzat:

- Webgunea eta online denda: bezeroek normalean online informazioa bilatzen dute eta erosketak modu erosoan egin nahi dituzte. Kanal hau egokia da haienentzat, produktuak ikusteko eta erosteko aukera ematen duelako.
- Aplikazioa: produktua erabiltzen dutenentzako beharrezkoa da, txiparen mugimendua jarraitzeko eta abisuak jasotzeko.

- Sare sozialak (Instagram, Facebook...): jende gazteago eta teknologiaz jabetuta dagoen bezero segmentuarekin konektatzeko aproposa da.
- Beste denda batzuk: produktua ezagutzen duten bezeroek bertan erosi dezakete; hau da zeharkako kanal bat.

Canvas faseak:

- Nola ezagutzen zaituzte bezeroek? Marketing bidez eta sare sozialen bidez ezagutzen dute Geo Segur.
- Non erosten dute? Webgunean edo produktua saltzen duten dendetan.
- Nola jasotzen dute produktua? Garraio bidez, etxera bidalita edo dendan bertan.
- Nola jartzen zarete harremanetan salmentaren ondoren? Posta elektronikoa, telefono edo WhatsApp bidez, baita aplikazioaren bidez abisuak bidaliz.

Laburbilduz:

Geo Segur-ek kanal propioak eta elkartuak erabiltzen ditu, bezeroekin harreman zuzena izateko eta merkatu handiago batera iristeko. Aukeratutako kanalak egokiak dira gure bezero segmentuarentzat, produktua modu erosoan erosteko eta segurtasunari buruzko zerbitzu osagarria jasotzeko aukera ematen dutelako.